



31 - 33 / 000000000004

NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004E  
Calle 111 A I 22 DCH  
Finca  
20000 Municipio  
Provincia

Zergadun hori:

Errenta aitortpenaren tramiteak errazteko, Gipuzkoako Foru Ogasunak 250.000 autolikidazio proposamen inguru prestatu ditu, eta haien artean zurea.

Hona hemen zure proposamenaren emaitza:  
2.864,08 euro **ITZULTZEA** (kobratuko duzun zenbatekoa).

Zenbateko hori aldatu egin daiteke proposamenean aldaketak egiten badituzu.

**GARRANTZITSUA:** 2021eko aitortpenean, etekinak sartu zenituen etxebizitzak edo lokalak errentan emateagatik edo kenkaria aplikatu zenuen ohiko etxebizitza alokatzeagatik. 2022ko proposamenean kontzeptu horiek ez ditugu sartu, zenbateko zehatzak ezagutzen ez ditugulako. Horrelako etekinak 2022. urtean ere jaso bazenituen, edo urte horretan kenkari hori aplikatzea badagokizu, proposamena onartu beharko duzu falta diren kontzeptuak bertan sartu eta gero. Hori guztia telefonoz 08:00etatik - 15:00etara edo internet bidez.

Proposamena onartuz gero, hiru egun balioduneko epean itzulketaren zenbatekoa sartuko dizugu ES11-2222-3333-4444-5555-6666 kontu korrontean.

**Berrikusi proposamena**, eta egiaztatu kontu korrontea baliozkoa dela. Proposamena onartzean, beste kontu bat aukeratu dezakezu.

#### A) PROPOSAMENAREKIN ADOS BAZAUDE

Interneteko [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena) helbidean onartu dezakezu, **2023ko apirilaren 3tik ekainaren 30era bitartean**, baita 943 11 30 00 telefono zenbakira deituz ere, eta, horretarako, NAN zenbakia eta orri honen beheko laukian ageri den kodea eskatuko zaizkizu.

#### B) PROPOSAMENAREKIN ADOS EZ BAZAUDE

B.1 - Eta hori gertatzen bada etxebizitzaren edo lokalen errentamenduetan edo kuota sindikalen, dohaintzen edo errentan hartutako ohiko etxebizitzaren kenkarietan aldeak daudelako, proposamena onartu dezakezu kontzeptu horiek bertan aldatu eta gero, telefonoz edo internet bidez.

B.2 - Iruditzen bazaizu proposamena beste arrazoi batengatik ez dagoela ondo, ZergaBidea programan jaitzi dezakezu (<https://zergabidea.gipuzkoa.eus>), haren barruan aldaketak egin eta aitortpena internet bidez aurkezteko (B@kQrekin, BAKrekin, ziurtagiriarekin, edo BESTE SARBIDE BATZUK apartatuan sortutako erabiltzailearekin). Aitortpena modalitate mekanizatuan ere aurkez dezakezu, betiere lortutako errentengatik aukera hori eragotzita ez baduzu.

Adeitasunez,

Jokin Perona Lerchundi  
Ogasuneko eta Finantzetako diputatua

Onartzeko epea: **(2023ko apirilaren 3tik ekainaren 30era bitartean)**

\* Telefonoz: **943 11 30 00 (astelehenetik ostiralera)**

- emaitza aldatu gabe: 08:00etatik - 20:00etara

- emaitza aldatuta: 08:00etatik - 15:00etara

\* Internet bidez [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena)

Interneten sartzeko, QR hau erabil dezakezu

Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:

\* Kodea: **004864**

\* NAN





Zergaduna: **NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004E**

Tributazio mota: **BATERA**

Ezkontza erregimena: **Irabazpidezkoa**

Helbidea: **CL Calle 111 A I 22 DCH Municipio**

Kontrola eta Artxiboa: **2023-109-9900280640**

Kenkarirako eskubidea ematen duten ondorengo ahaideak: **1**

Ezkontidea / Izatezko bikotea: **NOMBRE CONYUGE**

01 Lanaren etekinak	<b>38.892,64</b>	39 3/2014 FAKO 20. x.g.ko KUOTA OSOA	
02 Kapital higiezinaren etekinak		40 Atxikitako elementuen irabazien doikuntza	
03 Kapital higigarriaren etekinak		41 (37 + 38 + 39 - 40) KUOTA OSOA, GUZTIRA	<b>6.408,02</b>
04 Jarduera ekonomikoaren etekinak		42 Ondorengo ahaideak	<b>638,00</b>
05 Errenten egozpena		43 Seme-alaben urteko mantenua	
06 Ondare irabaziak (eskualdaketak ez)		44 Aurreko ahaideak	
07 (01etik 06rako batura) <b>Osagai positiboak, guztira</b>	<b>38.892,64</b>	45 Desgaituak	<b>2.091,00</b>
08 Gizarte Segurantza, funtzionarioen mutualitateak...	<b>20,89</b>	46 Mendeko pertsonak	
09 Kargu politikoaren ekarpenak		47 65 urtetik gorako adina	
10 Lanaren hobaria	<b>3.000,00</b>	48 Desgaituen ondareari egindako ekarpenak	
11 Errentan emandako higiezinaren gastuak		49 Ohiko etxebizitza errentan hartzea	
12 Kapital higigarriaren etekin negatiboak		50 Ohiko etxebizitza erostea	
13 Kapital higigarriaren gastuak		50b Eguzki energia ohiko etxebizitzan	
14 Jarduera ekonomikoaren etekin negatibo integragarria		51 Jardueretan inbertitzea	
15 Jarduera ekonomikoaren etekin negatiboaren konpentsazioa		52 Enpresa berrietan inbertitzea	
16 Ondarearen zenbateko negat. kopents. %10eko mugarekin		53 Hazkunde ahalmen handiko entitateak	
17 (08tik 16rako batura) <b>Osagai negatiboak, guztira</b>	<b>3.020,89</b>	54 Langileek entitatea eratzea	
18 Aurreko ekit.ko ZOOetako ondare galeren konpentsazioa		54b Soberakina errentamenduen beharapena	
19 (07 - 17 - 18) <b>ZERGA OINARRI OROKORRA</b>	<b>35.871,75</b>	55 Langileek enpresan parte hartzea	
20 Murrizpena batera tributatzegatik	<b>4.590,00</b>	55b Ticketbai sistemaren ezarpena	
21 Murrizpena pentsio konpentsagarriak ordaintzegatik		56 Estatuko sozietate zibilak	
22 Murrizpena BGAEei, etab. ekarpenak egiteagatik		57 Dohaintzak (%20)	<b>9,60</b>
23 Aurreko ekit.etako OLO negatiboaren konpentsazioa		58 Lehenasuneko jarduerak	
24 Justifikatu gabeko ondare irabaziak		59 Kultur mezenazgoa	
25 (19 - 20 - 21 - 22 - 23 + 24) <b>OINARRI LIKIDAGAR. OROKORRA</b>	<b>31.281,75</b>	60 Nazioarteko zergapetze bikoitza	<b>39,62</b>
26 Kapital higiezinaren etekinak		61 Sindikatuak eta alderdi politikoak	
27 Kapital higiezinaren gastuak		62 Beste kenkari batzuk	
28 Kapital higigarriaren etekin garbia	<b>45,65</b>	63 (42tik 62rako batura) <b>Kenkariak, guztira</b>	<b>2.778,22</b>
29 Aurreko ekit.etako kapital etekin negatiboaren konpen.		64 (41 - 63) <b>KUOTA LIKIDOA</b>	<b>3.629,80</b>
30 Ondare irabaziak (eskualdaketak)		65 Lana	<b>6.486,59</b>
31 Aurreko ekit.etako ondare galeren konpentsazioa		66 Kapital higiezina	<b>7,29</b>
32 Pents. konpentsagarriengatik murriztutakoaren soberakina		67 Kapital higigarria	
33 (26 - 27 + 28 - 29 + 30 - 31 - 32) <b>AURREZ. OINARRI LIKIDAG.</b>	<b>45,65</b>	68 Jarduera ekonomikoak	
34 (25 + 33) <b>OINARRI LIKIDAGARRIA</b>	<b>31.327,40</b>	69 Inbert.funtsak eta harpid.eskubideak	
35 16.940,00 raino 3.896,20		70 Sariak	
Gainerako + 14.341,75 % 28,00 (e)an 4.015,69		71 IETak eta ABEEak	
Oinarria (25) 31.281,75 Aurretiko kuota osoa, orokorra	<b>7.911,89</b>	72 (65tik 71erako batura) <b>Konturako ordaintzak</b>	<b>6.493,88</b>
36 Kuotaren gutxipena	<b>1.513,00</b>	73 Doiketa positiboak	
36b Kuota gehigarria murriztea		74 (64 - 72 + 73) Diferentzia	<b>2.864,08-</b>
37 (35 - 36-36b) <b>OINARRI OROKORRAREN KUOTA OSOA</b>	<b>6.398,89</b>	75 ERREGULARIZAZIOA	
38 raino		Aurreko autolik.eta likidazio.saldoa	
Gainerako + 45,65 % 20,00 (e)an 9,13		76 (74 - 75) <b>ITZULTZEKO EMAITZA</b>	<b>2.864,08</b>
Oinarria (33) 45,65 <b>K. OSOA, AURREZPENARENA</b>	<b>9,13</b>	<b>ORDAINTZEKO EMAITZA</b>	

Aurtengo aitortpenean sartzen ez diren errenta negatiboak hurrengo ekitaldian konpentsatuko dira indarrean dagoen araudiaren arabera.

**Itzulketaren zenbatekoa kontu zenbaki honetan ordainduko da**

**ES11-2222-3333-4444-5555-6666**

**entitatea: BANCO**

Proposamenari adostasuna emateko (2023ko apirilaren 3tik ekainaren 30era bitartean)

\* Telefonoz **943 11 30 00** (astelehenetik ostiralera)

- emaitza aldatu gabe: **08:00etatik - 20:00etara**

- emaitza aldatuta: **08:00etatik - 15:00etara**

\* Internet bidez [www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena](http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena)

Proposamena onartzeko eskatuko diren datuak:

\* Kodea: **004864**

\* NAN

## PROPOSAMENAREN XEHETASUNA

Zergaduna: NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004E			Kontrol eta artxiboa: 9900280640 000004	
Kontzeptua	Jasotzailea	Ordaintzailearen identifikazioa	Zenbatekoa	Atxikpenak
Lana	Ezkontidea	PAGADOR	37.951,20	6.316,21
Lana	Ezkontidea	PAGADOR	597,04	101,50
Lana	Ezkontidea	PAGADOR	344,40	68,88
Lana	Ezkontidea	SEGURIDAD SOCIAL	20,89	0,00
Kontuaren interesak	Aitortzailea	PAGADOR	22,82	3,64
Kontuaren interesak	Ezkontidea	PAGADOR	22,83	3,65
Beste Dohaintza	Aitortzailea	PAGADOR	32,00	0,00
Sindikatu/Alderdia	Aitortzailea	PAGADOR	180,00	0,00
Sindikatu/Alderdia	Ezkontidea	PAGADOR	18,11	0,00

## Ekitaldian jasotako errentak, salbuetsita egoteagatik aitorpenean sartzen ez direnak

Sarrerak aitorpenean konputatzen ez badira ere, atxikpenak eta gastuak kontuan hartzen dira

Jasotzailea	Ordaintzailea	Diru-sarrera	Gastuak	Atxikpenak
Aitortzailea	PAGADOR	18.670,59	0,00	0,00
Aitortzailea	PAGADOR	16.582,16	0,00	0,00

## TRIBUTAZIO MOTARIK ONURAGARRIENA

Zure familia unitateak bi modutara tributa dezake:

- \* Batera: aitorten bakar batean kide guztien errentak biltzen dira.
- \* Banaka: familia unitateko kide bakoitzak bere aitortpena aurkezten du.

Bi aukeren emaitza kalkulatu ondoren, zure familia unitatearentzat hobeto ateratzen den autolikidazio proposamena azaltzen dizugu: **batera** aitortzea. Emaitzak:

- \* Batera aitortua: 2.864,08 euro itzultzea
- \* Banaka aitortua: 399,58 euro ordaintzea, datu hauen arabera:
  - \* NOMBRE CONTRIBUYENTE 000004Eren aitorpenean 3,64 euro itzultzea
  - \* NOMBRE CONYUGERen aitorpenean 403,22 euro ordaintzea

Hortaz, bidali dizugun proposamenarekin ados bazaude, hura onartuta zuretzat onuragarriena den tributazio mota ere onartuko duzu, hau da, **batera** aitortzea.

600000900000090E0



## OROKORTASUNAK

### Kontu Korrontea

Egiaztatu 1. orriaren laukian ageri den kontu korrontea zurea dela eta erabilgarri dagoela. Hala ez bada, bi baldintza horiek betetzen dituen beste kontu baten IBAN kodea eman beharko diguzu.

### Proposamenaren emaitza aldatzea

Proposamena onartzeko unean kontzeptu hauek aldatu daitezke: **etxebizitza edo lokala errentan emateagatik lortutako** etekinak eta **kuota sindikalengatik, dohaintzengatik eta ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik** aplikatutako kenkariak.

### Tributazio mota (3 orria)

Familia unitatea osatzen bada, autolikidazio proposamena egiten da zergadunari **onuragarriago zaion tributazio mota aplikatuta (banakakoa edo baterakoa).**

### PROPOSAMENAREN AZALPENA (2. orria)

Jarraian, proposamenean ageri diren kontzeptuak azaltzen dira. Hurrengo apartatu bakoitzaren hasieran ageri diren zenbakiak 2. orrian atzealdean jasotako kontzeptu horien kodeak dira.

#### 01-08-09-10 Lanaren etekinak

Jasotzen den ordainketa bakoitzeko, sarrera eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak hartzen dira. Azkenik, lanaren hobaria lortzen da, baina hau aldatu egin daiteke sarreraren eta gastuen arteko diferentziaren arabera.

Diferentzia (sarrerak - gastuak)	Hobaria
< 7.500	4.650
7.500 - 15.000	4.650 - 0,22 x (Diferentzia - 7.500)
> 15.000	3.000

Lanetik ez datozen errentak konputatzen badira, eta horiek 7.500 eurotik gorakoak badira, hobaria 3.000 eurokoa izango da. Langile aktibo desgaituen kasuan, hobaria gehitu egiten da desgaitasun mailaren arabera:

Desgaitasun maila	Hobariaren gehikuntza
%33 - %64	%100
%33 - %64 eta mugikortasun murriztua	%250
> %65	%250

Hobaria aplikatzearen ondorioz ateratzen den lan etekin garbia ezin da negatiboa izan.

#### 02-11 Kapital higiezinaren etekinak (lokalak)

Sarrera gisa, errentamenduaren zenbatekoa sartzen da, eta, gastu gisa, OHZgatik ordaindutakoa, amortizazioa eta interesak, zenbait kasutan, eta ezer ez, beste zenbaitetan. Azken horietarako, lauki batek informazio gehiago jasotzen du proposamenaren xehetasun orrian.

#### 19 Zerga oinarri orokorra (ZOO)

Aurreko apartatuetakoa etekinen batura da

#### 25 Oinarri likidagarri orokorra (OLO)

OLOa lortzeko, murrizpen hauek aplikatzen zaizkio ZOOari:

- BGAEei egindako ekarpenak. Enpresariak ekarpenak egin baditu, oinarria murrizteaz gainera, lan etekintzat hartzen dira.

Murrizpenak 3 muga ditu: 5.000 zergadunaren ekarpenetarako, 8.000 euro enpresariaren kontribuzioetarako eta 12.000 euro zergadunaren ekarpenak eta enpresariaren kontribuzioak batuta.

- Batera aitortzen denean, zerga oinarria 4.590 euro murrizten da (3.987 euro, guraso bakarreko familia unitateen kasuan).

#### 35 Aurretiakoa kuota orokor osoa

OLOari ondoko taula aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Kuota osoa	Oin.aren gainerakoa (muga eurotan)	Tasa aplik.
0,00	0,00	16.940,00	%23
16.940,00	3.896,20	16.940,00	%28
33.880,00	8.639,40	16.940,00	%35
50.820,00	14.568,40	21.750,00	%40
72.570,00	23.268,40	27.940,00	%45
100.510,00	35.841,40	33.470,00	%46
133.980,00	51.237,60	61.340,00	%47
195.320,00	80.067,40	Hortik aurrera	%49

#### 36 Kuotaren murrizketa

Aitorpen bakoitzeko, 1.513 euro gutxitzen da kuota.

#### 36b Kuotaren murrizketa gehigarria

Zerga Oinarri Orokorra ≤ 30.000€ bada... Murrizketa = 200 euro.

Zerga Oinarri Orokorra > 30.000 € eta < 35.000 € bada...

Murrizketa = 200 euro - 0,04 x (Zerga Oinarri Orokorra - 30.000)

#### 35 Oinarri orokoraren kuota osoa

Aurretiakoa kuota orokor osoari (35) kuotaren gutxipena (36 kenduz lortzen da.

#### 26-27 Kapital higiezinaren etekinak (etxebizitzak)

Errentan emandako etxebizitza bakoitzeko, jasotako zenbatekoa sarrera gisa aitortzen da, eta sarreraren %20 gastu gisa.

#### 28 Kapital higigarriaren etekinak

Besteak beste, hauek sartzen dira: dibidenduak, kooperatiben itzulkinak eta kooperatiben aldeko ekarpenen interesak, kontuen interesak, bonoenak, bizitza aseguruaren kontratuetatik datozen etekinak, eta aktibo finantzarioak eskualdatzeagatik lortutakoak.

Dibidenduak 1.500 euroko mugaraino daude salbuetsita urtean aitorpen bakoitzeko. Kooperatibek ekarpenak direla-eta bazkideei ordaindutako interesari ez zaie aplikatzen salbuespen hau.

## 30 Ondare irabaziak

Inbertsio funtsetako partaidetzak eta harpidetza eskubideak 4 / 4 eskualdatzeagatik lortutakoak.

### 33 Aurrezpenaren zerga oinarria (AO)

Aurreko 3 apartatuetakoa errentak batuz lortzen da.

### 38 Aurrezpenaren kuota osoa

AOari taula hau aplikatuz lortzen da:

Oinarria (muga eurotan)	Kuota Osoa	Oin.aren gainerakoa (muga eurotan)	aplik. Tasa
0,00	0,00	2.500,00	%20
2.500,00	500,00	7.500,00	%21
10.000,00	2.075,00	5.000,00	%22
15.000,00	3.175,00	15.000,00	%23
30.000,00	6.625,00	Hortik aurrera	%25

### 39 3/2014 FAKo 20.x.g.ko hautazko araubidearen kuota osoa

Negoiazterea onartutako baloreen eskualdaketa zenbatekoen baturari %3 aplikatuz lortzen da.

### 42 Kenkaria ondorengo ahaideengatik

Lehenengoa.....	638
Bigarrena.....	790
Hirugarrena.....	1.332
Laugarrena.....	1.574
Bosgarrena eta hurrengoak.....	2.056 bakoitzagatik
Gehikuntza 6 urtetik beherakoa izateagatik.....	368

### 44 Kenkaria aurreko ahaideengatik

306 euroko kenkaria aplikatzen da, urte natural osoan zergadunarekin modu jarraitu eta iraunkorrean bizi den aurreko ahaide bakoitzagatik.

### 45 Kenkaria desgaitasunagatik

Desgaitasun maila	Kenkaria
%33 - %64	867
> %65	1.224
> %75 eta 15-39 puntu hirug. perts.en laguntzagatik	1.428
> %75 eta >40 puntu hirug. perts.en laguntzagatik	2.040

### 46 Kenkaria mendetasunagatik (bateraezina da desgaitasunaren kenkariarekin)

Mendetasun maila	Kenkaria
Mendetasun txikia	1.224
Mendetasun ertaina	1.428
Mendetasun handia	2.040

### 47 Kenkaria adinagatik

Kenkari hau aldatzen da adinaren, zerga oinarri osoaren (ZOG) eta tributazio motaren arabera.

ZOG = ZOO (19) + AO (33)

**Banakako** tributazioan hau da zenbatekoa:

Adina	ZOG < 20.000	ZOG 20.000-30.000 artekoa	ZOG > 30.000
> 65	367 Euro	367 - 0,0367 x (ZOG-20.000)	0 Euro
> 75	668 Euro	668 - 0,0668 x (ZOG-20.000)	0 Euro

**Baterako** tributazioan hau da zenbatekoa:

Adina	ZOG < 35.000	ZOG > 35.000
> 65	367 Euro	0 Euro
> 75	668 Euro	0 Euro

### 49 Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

Etxebizitza alokairuetan ordaindutako zenbatekoaren gainean:

	Kenkaria	Muga
-orokorrean.....	%20	1.600 euro
-30 urtetik beherakoentzat.....	%30	2.400 euro
-famili ugarientzat.....	%25	2.000 euro

### 50 Kenkaria ohiko etxebizitza eskuratzeagatik

%18ko kenkaria, 1.530 euroko mugarekin, **etxebizitza kontuetan** sartutako diru kopuruengatik eta **birgaitze lanen** zenbatekoarengatik (BEZa barne).

### 2012/01/01a baino lehen ESKURATUTAKO ETXEA

%18ko kenkaria, 2.160 euroko mugarekin aitorpen bakoitzeko (%23 eta 2.760 euroko muga, aitorpen bakoitzeko, 35 urtetik beherakoentzat eta familia ugarientzat) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

### 2012/01/01etik aurrera ESKURATUTAKO ETXEA

%18ko kenkaria, 1.530 euroko mugarekin (%23 eta 1.955 euroko muga, 30 urtetik beherakoentzat eta familia ugarientzat) **inbertsiorako maileguen** interesengatik eta amortizatutako kopuruengatik.

### 57-58-59 Kenkaria dohaintzengatik

57 Orokorrean: %20ko kenkaria.

58 Lehentasunezko jarduerak: %30eko kenkaria.

59 Kultural mezenazgoa: %35eko kenkaria.

### 61 Kenkaria langileen sindikatuari ordaindutako kuotengatik

%20ko kenkaria.

### 76 Kuota diferentziala

Kuota osotik (41) kenkariak (63) eta atxikipenak (72) kenduz kalkulatzen da zer zenbateko helbideratuko dugun zure kontuan proposamenarekin ados egonez gero (emaitza itzultzekoa bada, dirua jasotzen duzu, eta ordaintzekoa izanez gero, zenbatekoa kargatzen zaizu). Autolikidazioen emaitza itzultzekoa denean, itzulketa ezin da izan sartutako atxikipenaren zenbatekoa baino handiagoa.

